

## **HERNANI / “Lento proceso” liburuaz hitz egiteko elkartuko dira aurreneko solasaldian**

**Udazkeneko Literatur Solasaldiak urriaren 9an jarriko dira martxan. Jose Luis Canchoren “Lento proceso” liburua aztertuko dute eta ohi bezala, bera ariko da moderatzaile lanetan.**

Udako geldialdiaren ostean, Literatur Solasaldiak martxan jarriko dira urrian. Udazkenerako, bost liburuko egitaraua prestatu du Udal Liburutegiak.

Aurreneko solasaldia urriaren 9an izango da eta Lento proceso liburuaz hitz egiteko elkartuko dira. Lento proceso liburua, Jose Luis Canchorena da, hau da, gaztelaniazko liburuen solasaldietan dinamizatzaile lanetan aritzen den idazlearena, eta bera han dela, liburua sakonago azterzeko aukera ederra izango da. Ohi bezala, solasaldiak 19:30etatik 21:00etara izango dira, Liburutegian.

### **Urriak 15: “Abuztuaren 15eko bazkalondoa”**

Hurrengo solasaldia urriaren 15ean izango da. Euskeraz izango da, Ane Mayoz dinamizatzailearekin. Joxe Austin Arrietaren Abuztuaren 15eko bazkalondoa landuko dute.

### **Azaroan eta abenduan, gainerakoak**

Beste hiru solasaldiak azaroan eta abenduan izango dira: azaroaren 13an, John Williamsen Stoner; azaroaren 19an, Karmele Jaioren Ez naiz ni; eta abenduaren 17an, Luigi Pirandelloren Sei per-tsona autore bila. Aurreneko aldia bada eta liburua eskuratu nahi bada, Liburutegira jo

Inoiz parte hartu ez duena eta liburua eskuratu nahi duenak Liburutegiarekin jarri daiteke harremanetan: 943 552 966 edo liburutegi@hernani.net.